**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.**

**Organoa:** Udalbatza.
**Batzarra:** Ohikoa.
**Deialdia:** Lehenengoa.
**Eguna:** 2019.07.19.
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.
**Tokia:** Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

**Bertaratuak:**
**Alkatea:** Ladis Satrustegui Alzugaray jn.
**Zinegotziak:**
Maitane Rodriguez Etxabide and.
Iban Garro Alzuri jn.
Mattin Etxabide Gartzia jn.
José Luis Echegaray Andueza jn.
Ione Fagoaga Echarte and.
Iban de Prado Echepeteleku jn.
Esteban Irazoqui Irazoqui jn.
Jose Maria Portu Ochoteco jn.

**Bertaratu ez direnak:**
Maider ArrietaTapia and.
Iratxe Batiz Barzena and.

**Idazkaria:** M. Jose Larraioz Ariztegi and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO.**

**Organo:** Pleno.
**Sesión:** ordinaria.
**Convocatoria:** primera.
**Día:** 19.07.2019.
**Hora:** 19:00 horas de la tarde.
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.

**Asistentes:**
**Alcalde:** D. Ladis Satrústegui Alzugaray.
**Concejales:**
Dña. Maitane Rodriguez Etxabide.
D. Iban Garro Alzuri.
D. Mattin Etxabide Gartzia.
D. José Luis Echegaray Andueza.
Dña. Ione Fagoaga Echarte.
D. Iban de Prado Echepeteleku.
D. Esteban Irazoqui Irazoqui.
D. José María Portu Ochoteco.

**No asisten:**
Dña.Maider Arrieta Tapia.
Dña.Iratxe Batiz Barzena.

***Secretaria:** Dña. M. José Larráyoz Ariztegui.*

*En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.*

*Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son*

**LESAKAKO UDALA** | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

buruz aritu dira:

*tratados los siguientes asuntos:*

**1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2019ko uztailaren 12ko akta.

***1.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN***

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la última sesión, celebrada el día 12 de julio de 2019.*

**2.- SAIOA CRESPO AZPIROZ ANDREAK SUSTATUTAKO XEHETASUN AZTERLANARI BEHIN-BETIKO ONESPENA.**

2019ko maiatzaren 27ko Alkatetzaren 221/2019 ebazpenak, hasierako onarpena eman zion Saioa Crespo Azpiroz andreak sustatutako Xehetasun Azterlanari (Licobrme 2019/14 erreferentzia duena). Dokumentua Mikel Diaz de Ilarraza arkiteko jaunak idatzi du (769. sarrera, 2019/03/13koa Udaleko Erregistro orokorrean). Arretxea kaleko 9. zenbakiko etxeari dagokio.

Uztailaren 26ko, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluak ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean ikusgai egon da 20 egunez, jabe mugakideei egindako jakinarazpenen bidez, eta baita ere honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: ekainaren 4an, *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, eta 111. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 10eko, epe horretan alegaziorik aurkeztu ez delarik.

Halaber, espedientean idazkariak emandako txostena dago, ekainaren 10ekoa.

Hori guztia ikusirik, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, erabaki du:

***2.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR DÑA. SAIOA CRESPO AZPIROZ.***

*Por Resolución de la Alcaldía nº 221/2019, de 27 de mayo de 2019, se aprobó inicialmente el Estudio de Detalle promovido por doña Saioa Crespo Azpiroz (Ref.: Licobrme 2019/14). El documento ha sido redactado por el arquitecto don Mikel Díaz de Ilarraza (entrada nº 769, de 13/03/2019 en el Registro General del Ayuntamiento). Corresponde a la vivienda de la calle Arretxea nº 9.*

*Conforme a lo dispuesto por el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública, durante el periodo de 20 días, mediante notificaciones efectuadas a los propietarios colindantes y edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario de Noticias el día 4 de junio y en el Boletín Oficial de Navarra nº 111, de 10 de junio, sin que durante ese período se haya presentado alegación alguna.*

*Consta en el expediente el informe emitido por el secretario del Ayuntamiento con fecha 10 de junio.*

*A la vista de ello el Pleno, por unanimidad, con el voto unánime de sus integrantes, acuerda:*

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

1.) Behin betikoz onartzea Xehetasun Azterlana, Saioa Crespo Azpiroz andreak sustatutakoa.

*1º) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle promovido por doña Saioa Crespo Azpiroz.*

2.) Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*2º) Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

3.) 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Atalari onartutako Xehetasun Azterlanaren ale bat bidaltzea, hamar eguneko gehienezko epean, emandako txostenen kopiarekin batera.

*3º) De acuerdo a lo establecido por el artículo 72 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, enviar al Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de diez días, un ejemplar del Estudio de Detalle aprobado definitivamente, junto con copia de los informes emitidos.*

4.) Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea.

*4º) Que se notifique el presente acuerdo a la promotora.*

**3.- GOYA TELLECHEA SENIDEEK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.**

***3.- APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR HERMANOS GOYA TELLECHEA.***

2019ko uztailaren 1ean (2179. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

*Examinada la instancia presentada con fecha 1 de julio de 2019 (entrada nº 2179 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:*

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Miren Nekane Goia Telletxea andreak, M. Jesus Goya Tellechea andreak, Miren Andone Goya Tellechea eta Juan Ignacio Goya Tellechea jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: akazien mozketa, Biursoro parajean. Moztu behar den azalera 1.170 $m^2$ –koa da. Katastroko 6. poligonoko 47 partzelako CD azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2019/26).

*1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por Dña. Miren Nekane Goia Telletxea, Dña. M. Jesús Goya Tellechea, Dña. Miren Andone Goya Tellechea y D. Juan Ignacio Goya Tellechea para realizar una matarrasa de acacias en el paraje de Biursoro. La superficie de corta es de 1.170 $m^2$. Corresponde a las subparcelas CD de la parcela 47 del polígono 6 del catastro, (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2019/26).*

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko diote Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko

*2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberán comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que*

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

nola gelditu diren erabili diren bideak.

*éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.*

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko dute, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

*Para ello tendrán que constituir la fianza establecida, cuyo importe les será indicado.*

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaie haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

*Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.*

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

*En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.*

3.) Eskatzaileei jakinaraztea, finkak komunal ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

*3º) Comunicarles que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.*

**4.- JOSE ANGEL RODRIGUEZ TEJERA JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.**

***4.-APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR D. JOSE ANGEL RODRIGUEZ TEJERA.***

2019ko ekainaren 27an (2162. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

*Examinada la instancia presentada con fecha 27 de junio de 2019 (entrada nº 2162 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:*

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Jose Angel Rodriguez Tejera jaunak eta Iosu Izaguirre Gomez jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: akazien eta pinu intsignisen mozketa eta haritz amerikarren bakanketa, Ezkerrenborda parajean. Moztu behar den azalera 28.323 $m^2$ -koa da. Katastroko 10. poligonoko 215 partzela eta 10. poligonoko 62 partzelako O azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2019/25).

*1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por D.José Angel Rodriguez Tejera y D. Iosu Izaguirre Gomez para realizar una matarrasa de acacias y pino insignis así como entresaca de roble americano en el paraje de Ezkerrenborda. La superficie de corta es de 28.323 $m^2$. Corresponde a la parcela 215 del polígono 10 y a la subparcela O de la parcela 62 del polígono 10 del catastro, (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2019/25).*

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko diote Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

*2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberán comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.*

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko dute, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

*Para ello tendrán que constituir la fianza establecida, cuyo importe les será indicado.*

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaie haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

*Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.*

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

*En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.*

3.) Eskatzaileei jakinaraztea, finkak komunal ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

*3º) Comunicarles que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.*

## 5.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

## *5.- CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA*

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (209/2019 ebazpenetik 295/2019 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

*Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (desde la nº 209/2019 hasta la nº 295/2019). A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.*

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen

*Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia,*

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena..
Ez da inolako gairik planteatu.

*algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.*
*No se plantea cuestión alguna.*

**6. - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Ez da izan.

***6. - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.***

*No se formulan.*

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamar minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

*Siendo las diecisiete horas y diez minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.*

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus